



ENDOKRINOLOGOA ETA NUTRIZIOKO ESPAINIAR ELKARTEAREN, ENEE, 50. KONGRESUAREN INAUGURAZIOA

Bilbo, 2008ko maiatzak 28

OSASUN SAILBURUAREN HITZAK

Sonia Gaztambide An., Ibon Areso Jn., Carlos Diéguez Jn., jaun-
andreok, arratsalde on:

Lehenengo eta behin, neure eskerrona agertu nahi diet jardunaldi
zientifiko honen Batzorde Antolatzaileari eta Endokrinologia eta
Nutrizioko Elkarteari berari Kongresu hau inauguratzera gonbidatu
nautelako, jadanik bere 50. urteurrena betetzen duen edizio honetan.

50 urte, betiere espezialitate honetan gaurkotasun eta garrantzi handienekoak izan diren gaiak aztertzen; halere, edizio honetan bakar batzuk azpimarratu nahi nituzke:

1. Lehendabizi, elikapena eta elikapenarekin erlazionaturiko alderdi batzuk azpimarratuko nituzke, adibidez, obesitatea edota elikapen ohituren asalduak.

Gaur egun Europan, garaizaurreko heriotzaren zazpi arrisku faktore garrantzitsuenen artean, sei obesitatearekin eta gure jateko, edateko eta mugitzeko erarekin erlazionatuak daude. Diodan arrisku faktoreak, denok dakizuen bezala, honako hauek dira: tentsio arteriala, kolesterolaren zifrak eta gorputz masaren indizea altuegiak, fruta eta barazkien irenste desegokia, gutxiegiako jarduera fisikoa eta gehiegiako alkohol kontsumoa.

Obesitatea, lehen munduan, XXI. mendeko izurri berrien artean sartzen da eta lotura zuzena dauka jarduera fisikorik ez egitera garamatzaten bizi ohituren aldaketekin eta kaloria gehiegi irenstearekin, batez ere koipeak eta proteinak, karbono hidratoen kaltetan, funtsean AEBetatik datozkigun ohiturak.

Zorionez, EAEan, bertako elikapenak, sukaldaritza osasungarri eta naturaleko tradizio luze batean oinarritua, neurri batean eutsi egin dio otordu azkar eta desorekatu horien inportazioari.

Halere, adi egon beharra daukagu, azken urte hauetan geure dieta tradizionala alde batera utzi eta beste ez hain osasungarri batzuk hobestearen aldeko joera detektatu baitugu; hala, obesitatea gure artean epidemia mailara iristen ez bada ere, Autonomia Erkidego batzuetan eta Europako eta AEBetako zenbait herrialdetan gertatzen den bezala, jadanik gure herrialdean ere etengabeko igoera bat sumatzen da obesitatea jasaten duten gizon eta emakumeen portzentajea eta, 2007ko Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Inkestan, EAEOI 2007, jasotako datuen arabera, gizonezkoentzat %13 da eta emakumeentzat %11.

Aipatu nahi nukeen bigarren gaia **hezur metabolismoarekin eta kaltzio eta fosforo plasmatikoen mailen** gorabeherekin erlazionaturiko arazoak dira. Izan ere, **Osteoporosiaren** garrantzi sanitarioari (OMEk aurkezturiko datuen arabera, patologia honek mundu mailan duen erikortasunak 1990ean 1,7 milioi aldaka haustura suposatu bazituen, 2050 urtean hausturak 6 milioi izatea espero da), gaitz honen **prebentzio eta tratamendura** zuzenduriko estrategiak direla eta sortu berri diren eztabaidak gehitu behar zaizkio; bestalde, **Hiper eta Hipokaltzemiari** aurre egiteko agertu diren **berrikuntza diagnostiko eta terapeutikoak** direla bide, arazo hauek gaurkotasun handieneko bihurtu dira espezialista onenen artean.

2. Eta hau bezalako Kongresu batean nahitaez tratatu beharreko beste gai bat **Diabetes Mellitusarena** da, ukaezineko garrantzi sanitario, sozial eta ekonomikoa daukan gaixotasuna baita.

EAEan, tradizio luzea eta aparteko interesa daukagu gaixotasun honetan, hori erakusten du jadanik 1985ean bere prebalentziari buruzko lehenbiziko azterketa egin izanak; 10 urte geroago, diabetesaren intzidentziaren gainean estatu mailan egin zen lehenbiziko azterketan parte hartu genuen eta, azkenik, 2000 urtetik aurrera, EAEko Mediku Jagoleen Sarearen partaidetza aktiboarekin, Diabetesaren eta dakartzan konplikazioen intzidentziari eta prebalentziari buruz orain arte egin den azterketarik garrantzitsuena gauzatzen ari gara, **“Health Monitoring in Sentinel Practice Networks” Europar Proiektuarekin** lankidetzan jardunez.

Aipatu azterketak eman dituen datuen arabera, Diabetes Mellitusak Euskadin daukan prebalentzia **1.000 biztanleko 24,8koa da**; beraz, datu hori EAEko populazioaren guztizkora estrapolatuz, estima daiteke gure Autonomia Erkidegoan, gutxienez, **52.000 pertsona diabetiko ezagun daudela**. Hortik aparte, kontuan edukirik mendebaldeko gainerako gizarte guztietan bezala, ezagutzen ez den diabetesak, gutxienez gaixotasunaren %50a suposatzen duela, ondoriozta daiteke Euskadiko diabetikoen benetako kopurua 100.000 inguru pertsonakoa izango dela.

Egoera honen aurrean, gure ahaleginak **gaixotasunari bere fronte guztietan auka egitean** zentratzen dira, **bizi ohitura osasungarrien sustapenetik** abiatuz eta obesitatearen eta diabetesaren detekzio goiztiar eta tratamendu eta kontrol egokiarekin jarraituz. Horretarako, gaixotasunaren aurrerabidea moteltzeko eta konplikazio arriskuak murrizteko, beharrezkoa da, besteak beste, patologia hauei buruz daukagun ezagutza maila areagotzea eta **informaziorako eta azken aurrerakuntza zientifikoetarako sarbidea** edukitzea.

Horregatik, adi egongo gara Kongresu honen konklusioetara, bertan analizatuko baitira **II tipoko Diabetes Mellitusaren** garapenean erabakigarriak diren faktoreei buruz egin diren azken aurkikuntzak, gaixotasunaren azken ikuspegi terapeutikoak, **farmako berriak** (batzuk jadanik praktika klinikoan erabiltzen hasiak), edo **islote pankreatikoen transplante** itxaropentsua, eta Diabetes Mellitusaren **Alderdi Inmunogenetikoak**, diabetologiako arlo interesgarrienak, alegia. **Etorkizun baikorra** eskaintzen duten alderdiak dira, gaixotasunaren **ulerkuntza, prebentzio eta tratamenduari** dagokienez.

Ez nituzke hemen aipatu gabe utzi nahi bi egitate, nire ustez garrantzi handienekoak baitira gure herriarentzat: lehenik, **Gurutzetako Ospitaleko Ikerkuntza Unitatea**, zalantza gabe, azken urte hauetan benetan lan baliotsua egin baitu I tipoko eta MODY tipoko DMaren ezaugarri immunologikoak eta genetikoak argitzen; eta bigarren, gure Autonomia Erkidegoa izan dela, gure profesionalak, **II tipoko Diabetesarentzako praktika klinikoko Gidaren elaborazioa** lideratu dutenak, irizpide diagnostiko, terapeutiko eta segimendukoak batuz, betiere ezagutza zientifikorako errespeturik handienarekin, eta horrek ez baitik gabe gure ingurunean Diabetes Melitusaren ezagutza eta tratamenduaren kalitate estandarrak hobetzea ahalbidetuko du.

Horrexegatik eskaintzen diegu ENEEaren Kongresu hau bezalako ekimenei geure babes eta laguntza guztia, bete betean egokitzen direlako Osasun Sailak eta Osakidetza gaixotasun hauen aurka borrokatzeko estrategian definituak dauzkaten helburuetara.

Eta amaitzeko, neure eskerrona berriz ere Kongresuaren Antolatzaileei berau inauguratzera gonbidatu nauzuelako. Arrakastarik handiena opa dizuet, zalantzarik gabe lortuko duzuen, kontuan edukiz txostengileen kalitatea eta hautatu dituzuen gaien interesa.

Eskerrik asko zuen arretagatik.

GABRIEL M^a INCLÁN IRIBAR

OSASUN SAILBURUA